

# Liburu zahar berriak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

**D**uela zombait hilabete, 2022ko urtarrilaren 16an hain zuzen, artikulua interesgarria argitaratu zuen Peru Iparragirrek: *Euskarazko liburu zaharrek irakurle berririk bai?* Azpimarratu zituen egia deitoragarriak: gure literatura zaharra, bereziki klasikotzat daukaguna, ez dela gehiago eskuragarria, erdiesgarria beharko lukeelarik modu batu eta estandarizatuan, manera egokituari; hots, belaunaldi gazteek ez dutela paradarik iturri zaharretik edateko. Arrunt ados nago ikuspegi horrekin: kultura nagusiek egiten duten bezala, guk ere berrargitaratu beharko genituzke gure klasikoak, aurkezpen didaktiko eta kritikoa mamitsu bezain erakargarriekin.

Gogoan ditut bereziki idazki zaharrenak, Erdi Arotik heldu zaizkigun zati apurrak, Errenazimentuko garaikoak eta aro neoklasikokoak, erran nahi baitu XIX. mende aitzinekoak. Testu horiek are urrunagoak, eskuragaitzagoak eta ulertezinagoak dira egungo jende gehienarendako, ikasten ari denarendako ere bai. Bizkitartean, gurea osatzen dute eta ez genituzke arrotzu behar.

Ikusiz, gainera, aspaldiko denbora horietako testuak urriak direla, Europako beste hizkuntzetako lan literarioak

ere plazaratu beharko genituzke euskaraz, jakin gosez dagoenak aukera ukan dezan korrante literario zabalean kokatzeko euskal literatura zaharra.

Hortaz, eskertzekoa da Nafar Ate-neoak eta Booktegi plataforma digitalak iaz bideratu zuten egitasmoa: Nafarroako Margaritak 1559an idatzi *Heptameron*a euskaratzen ari dira, gero sarean dohainik zabaltzeko. Obra hori sortu zuen Margaritak, Boccaccioren *Decameron*aren ereduaren ildotik: bidaia batzuk Cauterets Pirinioetako komentu batean kokatuak daude, ekaitz azkar bategatik, horrek komunikabideak hautsi dituelako. Pertsonaiek beha egon behar dute zubi bat berriz eraikia izan dadin, eta denbora pasa, bi mezaren artean, istorioak kontatzen dizkiote bat besteari. Adin ezberdinetakoa ibiltariak dira, gizonak eta emazteak, eta helburutzat hartzen dute kontakizun atsegin eta dibertigarriak asmatzea. Orotara, 72 ipuin dira horrela irakurgai *Heptameron*a obran, zazpi egunetan banatuak, eta idazleak bururatu gabe utzi zuen bere lana.

Nafarroako Margarita hori François I. Frantziako erregearen arreba zen, Nafarroako Henrike II.aren espos laguna. Bi seme-alaba izan zituen: Nafarroako erregina bihurtu zen Albreteko Joana

eta Nafarroa eta Frantziako errege izan zen Henrike IV.a. Emazte jakintsu eta fina izan zen, mezenas ospetsua. Idazki berritzaileak ontu zituzten idazleak babestu zituen, hala nola Rabelais edo Bonaventure des Périers.

Nafar Ate-neo eta Booktegiaren proiektua berriki ezagutu dugun etxe zokoratze momentuan agertu zen. Obraren egun bat argitaratu nahiko lukete urtean. Lehen eguneko istorioak aurkeztu zituzten 2021eko urrian, Iruñeko Kontestablean; bigarren egunekoak, berriz, Amaiurren entzungai izanen dira osoki heldu den urriaren 29an. Edozoinen izena eman dezake irakurraldian parte hartzeko.

Sinbolo ederra da Amaiurreko guduaren 500. urteurrenaren kari antolatzea ekitaldia. Baina *Heptameron*aren euskarazko itzulpen horrek merezi du klasikoaren berreskuratze plan orokorra batean hartzea leku. Ez euskaldunok kontzientzia moral bati obeditzeko, baina lehenagoko estetika gozatuz argituago bilakatzeko. Irakur, bada, bat bestearen ondokik Etxepareren *Emazten fabore* eta Margaritak adierazten duena emaztearen kondizioaz aro "humanistan". Bi gogoeta baliteke hor egiteko, testuak ongi erkatuz... ●